EAE-KO LABORANTZA KANPAINETAN LAN EGITERA ETORTZEN DIREN PERTSONEN SASOIKAKO LAN GISA EZAGUNA DEN FORMULATIK ERATORRITAKO ARAZO SOZIAL, EKONOMIKO ETA KULTURALAK LEUNTZEKO HELBURUA DUTEN JARDUKETAK EGITEKO KONTRATAZIOA.

LEHENENGOA. - XEDEA.

Kontratuaren xedea da «EAEko laborantza-kanpainetan lan egitera etortzen diren pertsonen sasoikako lan» gisa ezaguna den formulatik eratorritako arazo sozial, ekonomiko eta kulturalak leuntzeko helburua duten jarduketen zerbitzua ematea, hala sasoikako langileei nola laborariei, aipatutako kanpainaren garapenean, 2025an luzatutako 2022-2024 Sasoikako Lanaren Arretarako V. Plan Integralarekin bat etorriz.

BIGARRENA.- HELBURU ESPEZIFIKOAK ETA ESTRATEGIKOAK

- Lan-kanpaina ahalik eta normalizatuenak diseinatzea honako hauei dagokienez: datak, epeak, aldi baterako langile kopurua, kontratatzaileen arteko irizpideen akordioa.
- Nekazaritza-ustiategiei haien beharretara ahalik eta gehien egokitzen diren eskaintzak egitea.
- Sasoikako langileen poltsa bat bermatzen saiatzea laborantzako eta nekazaritzako enpresen langileen beharrak asetzeko.
- Arabako Lurralde Historikoko laborantza-kanpainetan lan egiten duten pertsonekin azpikontratazioa, kontratazioko irregularkeriak eta legearen ez-betetzeak ekiditea, arreta berezia jarrita lan-arriskuen prebentzioan.
- Pertsona immigranteak landan integratzea, egoera hori normalizatu eta bazterketak ekiditea.
- Sasoikako langileak baldintza duinetan kontratatzea.
- Lan egitera bertaratzen diren pertsonei lanegunak ahal den gehien bermatzen saiatzea.
- Kontratazioak dakartzan izapide burokratikoak erraztea.
- Zuzenean aholku ematea proiektuan parte hartzen duten pertsonei.
- Parte hartzeko eta sentsibilizatzeko jarduerak, Sasoikako Lanaren Arretarako Planean harrera sustatze aldera.
- Sasoikako langileen integrazio soziala erraztea. Sasoikako pertsonentzat eskubideak eta betebeharrak jasotzen dituen harrera-liburu bat prestatzea.
- Ostatu duinak bermatzea, bizigarritasuneko gutxieneko baldintza batzuekin ekipatuak, eta prekarietate-egoerak ekiditea.

HIRUGARRENA.- GARATU BEHARREKO JARDUERAK

- Sasoikako laborantza-lanaren proiektuari eutsi eta sustatzea.
- Laborariak sentsibilizatzea sasoikako lanarekin lotutako gaietan.
- Sasoikako lanaren programan parte hartzen duten ustiategien kopurua handitzea.
- Garatzen jarraitzea 2025an luzatutako 2022-2024 Sasoikako Lanaren Arretarako V. Plan Integralak barne hartzen dituen funtzionaltasunak.
- Sasoikako lanaren proiektua kudeatzeko programa informatikoa garatzea.
- Informazio-bulegoaren funtzioei eustea Arabar Errioxan eta Gasteizen, hala kokapena nola doako informazioaren telefono-zenbakia sasoikako langileen kolektiboari.
- Kanpainetarako nekazaritzako sasoikako lanari buruzko informazio-bulegoei etengabe erantzutea, informazio eta laguntza soziolaboraleko zerbitzua emanda, ahalik eta osoena,

hala sasoikako langileei nola laborariei, bereziki laborantza-kanpainen garapenean zehar eta 2025an luzatutako 2022-2024 Sasoikako Lanaren Arretarako V. Plan Integralarekin bat etorriz.

- Bulegoen eta haien zerbitzu-zorroaren berri ematea.
- Nekazaritzako ustiategiei laguntzea langileak kontratatzeak dakartzan beharrezko izapideak egiten.
- Langileak kontratatzeko eta horien eskubide eta betebeharren gaineko izapideak egitea erraztea.
- Sasoikako langileen poltsa bat sortu eta kudeatzea bultzatzea.
- Aholkua ematea ostatuaren arloan dauden baliabideen inguruan.
- Laborantzako sasoikako langileen eta/edo horiekin bertaratzen direnen kolektiboari bideratutako neurri sozialen berri ematea.
- Ostatu duina ematea sasoikako langileen kolektiboari, laborantza-lan gehien dagoen denboraldietan herritar gehiago izatearen ondorioz kanpamentu ibiltariak egoten baitira, kasu askotan bizigarritasuneko eta garbitasuneko gutxieneko baldintza batzuk gabe.
- Sasoikako langileentzako eta laborari kontratatzaileentzako enplegurako prestakuntza-programak diseinatzen laguntzea.
- Lezako eta Aguraingo ostatuak kudeatzea udal bakoitzean sinatutako hitzarmenen arabera.
- Gainbegiratzea hitzarmenetan jasotako higiezinek, ostatu moduan erabilitakoek, proiektuaren esparruan betetzen dituztela exijitutako irizpideak.
- Legalak ez diruditen zerbitzu-enpresekin lan egiten duten ustiategiak identifikatzea eta sasoikako laborantza-lanaren proiektuan integratzea erraztea.
- Parte hartzeko eta sentsibilizatzeko jarduerak egitea, Sasoikako Lanaren Arretarako Planean harrera sustatze aldera.
- Sasoikako langileen integrazio soziala erraztea. Sasoikako pertsonentzat eskubideak eta betebeharrak jasotzen dituen harrera-liburu bat prestatzea.
- Sasoikako langileen beharrak aztertzea askotariko azpisektore eta lurraldeekin, eragileekin eta elkarte sektorialekin kontrastatuta.
- Sasoikako lanaren zerbitzu-emateak aztertzea, kontratatzaileak izan daitezkeen pertsonekin eta enpresekin kontaktatuta haien beharrak eta eskaerak identifikatzeko eta sasoikako lanaren zerbitzua egokitzeko.
- Sasoikako langileen integrazio soziala erraztea.

LAUGARRENA.-LANAREN DESKRIBAPENA

Sasoikako Lanaren Arretarako V. Plan Integralak 2022 – 2024 aldia hartzen du, luzatu egin da 2025. urtean eta haren asmoa da jarraipena ematea eta garatzea duela 15 urte baino gehiagotik gaur arte Euskal Autonomia Erkidegoan egindako lanak eta esfortzuak honako esparru hauetan: sasoikako laborantza-lanaren sentsibilizazioan, bai eta sasoikako laborantza-lanaren kolektiboarekin lotutako oinarrizko gaietan planteatzen diren egoera batzuk hobetzen ere, esaterako, ostatua, adingabeen hezkuntza, gizarteratzea eta kontratazio-baldintzak.

Premisa moduan eta garatu beharreko ekintzen barruan, honako hau bete beharko da:

- Azpikontratazioa ekidin

- EAEko laborantza-azpisektoreetako langileen beharrak asetzea
- Sasoikako lana duin egitea ostatuak, lan-baldintzak eta prestakuntza hobetuta.
- Elkartasuna laborarien eta sasoikako langileen kolektiboen artean.

Horrez gain, beharrezkotzat joko da arlo honetan kalitate-politika bat ezartzea:

- Azpikontratazioari lotutako kontratazio-moduak ezberdinduta
- Programan parte hartzen duten nekazaritzako ustiategiei eta upeltegiei bermatuta legeak betetzen direla eta pertsonak duin tratatzen direla.
- Programan parte hartzen duten sasoikako langileen kolektiboari ziurtatuta legeak betetzen direla eta tratu duina dagoela.
- Esparru soziolaboraleko organismo kudeatzaileei eta ikuskatzaileei ziurtatuta betetzen dela arloan indarrean dagoen araudia.
- Gizarteari helaraztea sasoikako lanaren problematika, gai izan dadin ikuspegi kritiko batetik abiatuta baloratzeko eta horren arabera jokatzeko.

Adosten den egitura antolatzaileak ahalbidetu eta bermatu beharko du zuzen egiten direla planteatutako ekintzak eta betetzen dela aipatutako plan integralean garatzen den sasoikako lanaren programa.

Egitura horrek barne hartuko du bere jarduketen artean EAEko laborantza-kanpainetako sasoikako langileen kudeaketa osoa, informazio-bulegoei edo -lokalei berri emanda Guardiako eta Gasteizko sasoikako laborantza-lanaren gainean eta esparru soziolaboraleko informazioa eta aholkularitza eskainita, hala sasoikako langileei nola laborariei, aipatutako kanpainen garapenean, Sasoikako Lanaren Arretarako V. Plan Integralarekin bat etorriz.

Arretarako eta zerbitzurako proposatzen diren ordutegiak honako hauek dira: 8:30etik 14:00etara eta 15:00etatik 17:30era, astelehenik ostiralera. Guardiako bulegoetan izango da, mahastizaintza- eta ardogintza-sektoreko lan-kanpaina nagusiek iraun bitartean (udaberriko kimaketa, kimu berrien kimaketa, mahats-bilketa goiztiarra eta azken mahats-bilketa), batzuetan (astean 3 egunetan) Gasteizkoetan ere izango da, piperraren era patataren kanpainetarako (ordutegi berberarekin). Beharrezkoak izango dira langileen errefortzurako eta laguntzarako zerbitzuak lan handiagoa dagoen egunetan eta garaietan, kanpainetako bakoitzean larunbatetan eta igandeetan bertaratzeko aukera kontuan izanda.

Era berean, arreta-zerbitzua eman beharko da 900 101 400 telefono-zenbakian (doakoa da), egun horietan, ordutegi berean eta ezarritako lekuetan, baita Lezako eta Aguraingo ostatuak kudeatu ere.